

IKERTZAILE DOKTOREEN HOBEKUNTZARAKO DOKTOREGO ONDOKO PROGRAMEN DEIALDIA

2019-2020

Laguntza berriak

Deialdiaren xedea:

Laguntza berriak emango dira EAEko ezarpen zentroetan izango diren ikertzaile doktoeren hobekuntzarako eta aldi baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktoeren desplazamendurako. Horretaz gainera, 2018-2019 ikasturterako emandako laguntzak ere berrituko dira.

Diru laguntzen ezaugarriak:

Ikerketa Orokorren lerroan 24 laguntza emango dira eta Ikerketa Espezifikoarenean 2:

- Polimeroen eta sistema makromolekularren ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Energiarako materialen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Material funtzionalen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Sistema biologikoen eta material bio-inspiratuen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.

Kontratuaren iraupena eta ezaugarriak:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiar Sistemara sartzeko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte laguntzek (LCTIren 22. artikulua).

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du eta bi urte gehiagoz luzatu ahalko da. Kontratuak 2020ko urtarrilean formalizatuko dira. Onuradunek 28.280 euro gordin jasoko dituzte urtean.

UPV/EHUko KONPROMISO AGIRIA LORTZEKO PROZEDURA:

Eskatzaileek **uztailaren 9 arte (egun hori barne)** izango dute dokumentu hauek aurkezteko posta elektronikoz (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), mezua gaitan "POSDOC deialdia Eusko Jaurlaritza":

1. **NANaren kopia.**
2. **Doktore tituluaren kopia.**
3. **Datu pertsonalen fitxa.** Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.
4. **UPV/EHUko ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatutako ziurtagiria** (Deialdiko 25.13 artikulua). Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.

Data horretatik aurrera ez da konpromiso agiri gehiago egingo. Beranduago jasotzen diren eskaerak okerrak zuzentzeko prozeduraren ondorioz atendituko dira.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Eskatzailea arduratuko da eskaera betetzeaz eta deialdiko oinarrietako 21. artikuluan adierazitako bideetako edozein erabiliz erregistratzeaz. Horretarako epea **2019ko uztailaren 12an (egun hori barne)** amaituko da.

Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000

Informazio gehiago:

http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru_laguntza/2019/posdoc-berri/s68-contay/eu/